



## **EIBARKO UDALA**

## **AYUNTAMIENTO DE IBAR**

### ***2018-2020 aldirako Diru-laguntzei buruzko Plan Estrategikoa***

### ***Plan Estratégico de Subvenciones 2018-2020***

#### **ATARIKOA**

#### **PREÁMBULO**

Diru-laguntzen Lege Orokorrek beste pauso bat gehiago ematen du sistema ekonomikoa perfektionatzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea sustraitzen duen printzipioetako bat gardentasunarena da eta horrek, legean hezuramaitzen diren beste baliabide askorekin batera, diru-laguntzetarako gastu publikoaren kudeaketaren eraginkortasun eta efizientzia mailaren igoera dakar zuzenean.

La Ley General de Subvenciones supone un paso más en el proceso de perfeccionamiento y racionalización del sistema económico. Uno de los principios que rige la Ley es el de la transparencia que, junto con la variedad de instrumentos que se articulan en la ley, redunde de forma directa en un incremento de los niveles de eficacia y eficiencia en la gestión del gasto público local subvencional.

Oinarrizko izaera du azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1. artikulua, beraz, diru-laguntzak eman nahi dituzten udal guztiek, diru-laguntzak eman aurretik eta hainbat urtetarako, nork bere Diru-laguntzetarako Plan Estrategikoa onartu behar dute.

El artículo 8.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, tiene carácter básico, por lo que todos los Ayuntamientos que pretendan otorgar subvenciones deben aprobar su correspondiente Plan Estratégico de Subvenciones, con carácter previo a la concesión de las subvenciones y de carácter plurianual.

Era berean, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak — 38/2003 Legearen Araudia onartzen duena—, ezartzen du diru-laguntzen plan estraterikoa politika publikoak planifikatzeko tresna direla, eta erabilera publiko edo interes sozialeko jarduera bat sustatzea dutela helburu. Halaber, arautu egin dut zer eduki izan behar duten Diru-laguntzen Plan Estraterikoa.

De la misma manera, el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, establece que los planes estraterikoa de subvenciones se configuran como un instrumento de planificación de las políticas públicas que tienen por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social. Asimismo, regula el contenido que han de tener los Planes Estraterikoa de Subvenciones.

Horregatik, Eibarko Udalak Diru-laguntzen Plan Estraterikoa hau onartzen du, Udalak ematen dituen diru-laguntzak arautuko dituen helburu estraterikoa, arauak eta printzipio orokorrek ezartzeko plana, eta baita haren justifikazioa eta kontrola ere.

Por ello este Ayuntamiento de Eibar aprueba el siguiente Plan Estratégico de Subvenciones, plan que configura los objetivos estraterikoa, normas y principios generales que regularán la concesión de las subvenciones municipales así como su justificación y control.

#### **I. KAPITULUA. DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATERIKOAREN XEDAPEN NAGUSIAK**

#### **CAPÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES DEL PLAN ESTRATERIKOA DE SUBVENCIONES**



**1. artikulua.** Udal honek 2018-2020 aldirako xedatuko dituen diru-laguntza guztiak lotuta geratuko dira honako Plan honekin eta Eibarko Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitakoarekin.

Nolanahi ere, jarraipen-txostenak kontuan hartuta eta aurrekontu-erabilgarritasunaren arabera, plan honetako diru-laguntzen erroak eguneratu edo aldatu ahalko dira urtero; hala ere, aldaketa horrek ez dio eragingo planaren osagaien funtsezko edukuari.

**2. artikulua.** Plan honetan aurreikusitako diru-laguntzak benetan xedatzeak eskatzen duena da urte bakoitzeko udal Aurrekontuetan diru-laguntza horiei dagozkien diru-izendapenak egitea eta diru-laguntzok emateko oinarri arautzaileak onartzea edo zuzenean ematea adostea.

Era berean, aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzearen menpe dago diru-laguntzak xedatzea, beraz, aurrekontuetan onar daitezkeen diru-izendapenak eta diru-laguntzok emateko oinarri arautzaileak ere, helburu horietara egokituko dira une bakoitzean.

**3. artikulua.** Plan honek hiru urteko indarraldia du, alegia, 2018-2020 aldirako balio du, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 11.4. artikulua ezarritakoaren arabera —Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onartzen duena—. Indarraldian sartuko da horretarako eskumena duen organoak onartu ondoren, alegia, Udalbatzarrak onartu ondoren.

2020a amaituta, Diru-laguntzen Plan Estrategiko berririk onartu ez balitz, oraingo hau luzatuko da egingo diren jarduketetan, betiere horretarako diru-izendapen nahikoa eta behar adinakoa badago.

**4. artikulua.** Tokiko Gobernu Batzarra izango da, diru-laguntzak emateko udal Ordenantza arautzailearen arabera, Diru-laguntzen Plan Estrategikoa egikaritzeko eginkizuna duen

**Artículo 1.** El establecimiento de subvenciones por este Ayuntamiento durante el período 2018-2020 se ajustará a lo previsto en el presente Plan y en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Eibar.

No obstante lo anterior, a la vista de los informes de seguimiento y de acuerdo a las disponibilidades presupuestarias, las líneas de subvención del presente plan podrán verse actualizadas o modificadas anualmente, sin que dicha modificación pueda suponer variación sustancial de los componentes de la misma.

**Artículo 2.** El establecimiento efectivo de las subvenciones previstas en este Plan requerirá la inclusión de las consignaciones correspondientes en los Presupuestos municipales de cada año y la aprobación de las bases reguladoras de su concesión o el acuerdo que apruebe la concesión directa.

Asimismo, quedará supeditada al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, por lo que las consignaciones presupuestarias que se aprueben y las bases reguladoras de su concesión se acomodarán en cada momento a dichos objetivos.

**Artículo 3.** El presente Plan tendrá una vigencia de tres años, es decir, para el período 2018-2020, tal y como se establece en el artículo 11.4 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, General de Subvenciones. Entrará en vigor en el momento de su aprobación por el órgano competente para ello, que es Pleno municipal del Ayuntamiento.

En el supuesto de que concluido el ejercicio 2020 no se hubiese aprobado aún un nuevo Plan Estratégico de Subvenciones, el presente se entenderá prorrogado en aquellas líneas de actuación que se vayan a seguir realizando, siempre que, para ello se cuente con consignación presupuestaria adecuada y suficiente.

**Artículo 4.** El órgano que tiene atribuida la función de ejecución del Plan Estratégico de Subvenciones, competente para la concesión de ayudas o subvenciones, de acuerdo a la



organoa, hau da, laguntzak edo diru-laguntzak emateko eskuduna.

**5. artikulua.** Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzeak ez du esan nahi inongo eskubiderik sortzen denik onuradun izan litezkeen alde; halako moldez, non ezingo duten inongo kalte-ordainik edo konpentsaziorik eskatu Planak dioena gauzatzen ez bada.

**6. artikulua.** Plan Estrategiko honen printzipio nagusiak hauexek dira:

—Publizitate- eta gardentasun-printzipioa, alde aurreko deialdiaren bidez, non funts publikoetan objektibotasuna, gardentasuna, publizitatea, lehia eta berdintasuna bermatuko diren, hori guztia baztertu gabe balitekeela zuzeneko diru-laguntza ematea, aplikatu beharreko arauan ezarritakoarekin bat, alde aurretiko diru-izendapena izan beharko duena.

—Lehia-, gardentasun- eta bazterketa eza-printzipioak, onuradunek bete beharreko baldintzak zehaztean, interes orokorrari erantzuteko xedez.

—Objetibotasun-printzipioa: diru-laguntzak deialdian alde aurretik ezarritako irizpide objektiboari jarraituz emango dira, onuradun izan litezkeen pertsonen aurretik haien berri izan dezaten bermatzeko.

—Eraginkortasun- eta efizientzia-printzipioak: ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna eta efizientzia baliabide publikoak izendatzean; diru-izendapen horiek justifikatu egin beharko dira kuantitatiboki eta kualitatiboki.

—Aurrekontu-egonkortasun printzipioa eta gastu-erregelarena: diru-laguntzak ematea egonkortasun eta gastu-erregelaren printzipioetara egokituko da, Aurrekontuen Egonkortasunaren apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitakoari jarraituz.

—Kontrol- eta analisi-printzipioak, bermatzeko entitate eskatzaileen helburuak berdintasun-printzipiora eta bazterkeria

Ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones, será la Junta de Gobierno Local.

**Artículo 5.** La aprobación del Plan Estratégico de Subvenciones no supone la generación de derecho alguno en favor de los potenciales beneficiarios, que no podrán exigir indemnización o compensación alguna en caso de que el Plan no se lleve a la práctica en sus propios términos.

**Artículo 6.** Son principios generales de este Plan Estratégico los siguientes:

— Principio de publicidad y transparencia mediante convocatoria previa en la que se garantice la objetividad, transparencia, publicidad, concurrencia e igualdad en la distribución de los fondos públicos, ello sin perjuicio de la posible concesión directa que, de conformidad con lo establecido en la norma aplicable, deberá contar con la debida consignación presupuestaria previa.

— Principio de libre concurrencia, igualdad y no discriminación en la determinación de los requisitos que deben cumplir los beneficiarios, al objeto de la plena satisfacción del interés general.

— Principio de objetividad: La concesión de subvenciones se realizará conforme a criterios objetivos previamente establecidos en la convocatoria a fin de garantizar el conocimiento previo de los mismos por los potenciales beneficiarios.

— Principios de eficacia y eficiencia: Eficacia en el cumplimiento de los objetivos marcados y eficiencia en la asignación de recursos públicos, debiéndose justificar cuantitativa y cualitativamente.

— Principio de estabilidad presupuestaria y de regla de gasto: La concesión de subvenciones se ajustará al principio de estabilidad y a la regla de gasto, en los términos previstos en la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera.

— Principio de control y análisis de la adecuación de los fines de las entidades solicitantes a los principios de igualdad y no



ezaren printzipiora egokitzen direla diruz lagundutako jardueretan.

discriminación en el ejercicio de las actividades subvencionadas.

## II. KAPITULUA. PLANAREN HELBURU OROKORRAK ETA ESTRATEGIKOAK

## CAPÍTULO II OBJETIVOS GENERALES Y ESTRATÉGICOS DEL PLAN

**7. artikulua.** Hauexek dira Planaren helburu orokorrak:

**Artículo 7.** Son objetivos generales del presente Plan los siguientes:

—Azaroaren 17ko 38/2003 Legean jasotako lege-agindua betetzea; 8.1. artikuluan diru-laguntzak eman nahi dituzten udalak behartzen ditu beren Plan Estrategikoa onartzera.

— Cumplir el mandato legal recogido en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, que en su artículo 8.1 obliga a los Ayuntamientos que pretendan otorgar subvenciones, a aprobar su correspondiente Plan Estratégico.

—Zuzenean eragitea eraginkortasun eta efizientzia maila areagotzen diru-laguntzen gastu publikoaren kudeaketan; diru-laguntza egokitu beharreko araudia oro har arautuz eta diru-laguntzen lerroak justifikatuz.

— Incidir de forma directa en un incremento de los niveles de eficacia y eficiencia en la gestión del gasto público subvencional, regulando con carácter general el régimen al que ha de ajustarse la concesión y justificación de las líneas de ayudas.

—Herritarrek diru-laguntzen programetara jotzea optimizatzea gardentasuna, lehia eta udal irizpide bateratua erabiltzea bermatuz.

— Optimizar el acceso de la ciudadanía a los programas de subvención con garantías de transparencia, uniformidad de criterio municipal y de libre concurrencia.

—Diru-laguntzen udal kudeaketa arrazionalizatzea, honako hauek kontuan hartuz: zeharkakotasuna planifikatzerakoan, sistematikotasuna haren prozeduretan eta tresna tekniko aurreratuak haren ebaluazioan.

— Racionalizar la gestión municipal subvencional dotándola de transversalidad en su planificación, sistematicidad en sus procedimientos y de herramientas técnicas avanzadas para su evaluación.

**8. artikulua.** Diru-laguntzen Plan Estrategikoak lortu nahi dituen helburu estrategikoak eta ondorio nagusiak honako hauek dira:

**Artículo 8.** Los objetivos estratégicos y efectos generales que pretende conseguir el Plan Estratégico de Subvenciones son los siguientes:

—Erraminta bat ematea Udalari, haren eskumenen baitan, guztion intereseko jarduerak eragin eta susta ditzan.

— Dotar al Ayuntamiento de una herramienta que le permita, dentro del ámbito de sus competencias, fomentar y apoyar las actividades de interés general.

--Udal kudeaketaren esparru desberdinetan herritarren parte-hartzea eragitea, sustatzea eta bultzatzea.

— Promover, potenciar e impulsar la participación de la sociedad civil en los distintos ámbitos de la gestión municipal.

--Gizarte-zaurgarritasuneko egoera jakin batzuetan dauden pertsonen gizarteratzea bultzatzea.

— Favorecer la inclusión social de las personas en determinadas situaciones de vulnerabilidad social.

—Aukera-berdintasun printzipioa defendatzea.

— Defender el principio de igualdad de oportunidades.



### III. KAPITULUA. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAK ETA DIRU- LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

**9. artikulua.** Udalak, deialdi publikoen bidez edo lankidetzeta-hitzarmenak sinatuz, diru-laguntzak emango dizkie pertsonai, elkarteei edo entitate pribatuei helburu hauekin: erabilgarritasun publikoko edo gizarte-intereseko ekimenak egin daitezen bultzatzea edo toki-eskumenari egozten zaizkion helburu publikoak lor daitezen sustatzea.

**10. artikulua.** Eibarko Udalaren Plan Estrategiko hau zuzenean aplikatuko zaie Udalak urtero ematen dituen diru-laguntzei.

**11. artikulua.** Honako hauek geratzen dira Plan honen aplikazio-esparrutik kanpo:

- a) Onuradunek alde zuzenetik eskatu barik ematen diren sari edo beka.
- b) Udalbatzako talde politikoei ematen zaizkien diru-laguntzak.
- c) Bere oreka ekonomiko-finantzarioari eusteko, mankomunitateei, entitateei, elkarteei eta partaidetzako sozietate publikoei kuota kontzeptuan (ohikoak zein ez-ohikoak) Udalak egiten dizkien diru-ekarpenak.

### IV. KAPITULUA. EXEKUZIO-EPEA, AURREIKUSITAKO KOSTUAK ETA DIRU-LAGUNTZEN FINANTZAZIOA

**12. artikulua.** Oro har, udalaren diru-laguntzek urteko exekuzio-epea (diruz lagundutako jarduketak garatzeko) izango dute eta urte naturala izango da hautatuko den epea justifikazioaren ondorioetarako.

Kasu batzuetan, inguruabarrek komenigarri egiten badute urtebetetik gorako exekuzio-epea ezartzea edo epe hautagarria aldatzea,

### CAPÍTULO III PERSONAS O ENTIDADES BENEFICIARIAS Y PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN

**Artículo 9.** El Ayuntamiento concederá subvenciones, mediante convocatoria pública o a través de la firma de convenios de colaboración, a favor de personas, asociaciones o entidades privadas con la finalidad de fomentar la realización de actividades de utilidad pública o interés social o para promover la consecución de fines públicos atribuidos a la competencia local.

**Artículo 10.** El presente Plan Estratégico del Ayuntamiento de Eibar resulta de aplicación directa a todas las subvenciones concedidas anualmente por el Ayuntamiento

**Artículo 11.** Quedan excluidos del ámbito de aplicación del presente Plan:

- a) Los premios o becas que se otorguen sin la previa solicitud del beneficiario.
- b) Las subvenciones a Grupos Políticos de la Corporación Local.
- c) Las aportaciones dinerarias que en concepto de cuotas, tanto ordinarias como extraordinarias, realice el Ayuntamiento a favor de Mancomunidades, entidades, asociaciones y sociedades públicas participadas, para mantener su equilibrio económico-financiero.

### CAPÍTULO IV PLAZO DE EJECUCIÓN, COSTES PREVISIBLES Y FINANCIACIÓN DE LAS SUBVENCIONES

**Artículo 12.** Con carácter general, las subvenciones municipales tendrán un plazo de ejecución (de desarrollo de las actuaciones subvencionadas) anual, siendo el periodo elegible a efectos de justificación el año natural.

En aquellos supuestos en los que las circunstancias hagan conveniente la fijación de un plazo de ejecución superior al anual, o



diru-laguntzen deialdietan jaso beharko dira inguruabar horiek; kasu horietan ere, jarraitu beharko dute urtero betetzen indarraldiko legediak ezartzen dituen baldintzak.

**13. artikulua.** Plan Estrategiko honek aipagai dituen diru-laguntzak erreferentziako jardunaldi bakoitzaren udal aurrekontuen kargura finantzatzen dira, eta, hortaz, baldintzatuak eta mugatuak egongo dira urteroko aurrekontuan onartzera eta hango diru-izendapenetara.

Kostuak, kasu orotan, Udalaren aurrekontu orokorrean urtero ezartzen den zenbatekora mugatuko dira eta ezingo da diru-laguntzarik eman zehazten den kopurutik gorakorik.

Diru-laguntzen programak baldintzatuak geratuko dira aurrekontu nahikoa eta behar adinakoa egotera. Diru-laguntzak eman aurretik, Eibarko Udaleko aurrekontu-arauetan ezarritakoa kontuan hartuta tramitatu beharko da gastuaren baimena.

## V. KAPITULUA. PLANAREN EDUKIA

**14. artikulua.** Plan Estrategikoak Diru-laguntzen Lege Orokorraren Araudiaren 12.2. artikuluan jasotako eduki mugatua izango du.

**15. artikulua.** Plan Estrategiko honetan jasota dauden jarduketa-ildo estrategikoak — Udalaren diru-laguntzen ildoak ere hementxe sartuak daude— dira Planari atxikitako eranskinean adierazten direnak.

## VI. KAPITULUA. DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMAK KONTROLATZEA ETA EBALUATZEA

**16. artikulua.** Diru-laguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto aztertzeko, diru-laguntzak emateko prozeduran organo instruktore gisa jarduten duten zerbitzuek eskatu egingo diete onuradunei, hala

la modificación del periodo elegible, se deberán recoger en las correspondientes bases de subvenciones, en cuyo caso, deberán seguir cumplimentando anualmente los requisitos que establece la legislación vigente.

**Artículo 13.** Las subvenciones a que hace referencia este Plan Estratégico, se financian con cargo a los presupuestos municipales de cada ejercicio de referencia, y quedarán condicionadas y limitadas a la aprobación de las mismas en el correspondiente presupuesto anual y a sus consignaciones.

Los costes en cada caso se limitan a la cantidad que anualmente se fije en el presupuesto general del Ayuntamiento y no podrán otorgarse subvenciones por cuantía superior a la que se determine.

Los programas de subvenciones quedarán condicionados a la existencia de dotación presupuestaria adecuada y suficiente. Con carácter previo al otorgamiento de las subvenciones deberá tramitarse la autorización del gasto en los términos previstos en las normas presupuestarias del Ayuntamiento de Eibar.

## CAPÍTULO V CONTENIDO DEL PLAN

**Artículo 14.** El Plan Estratégico tendrá el contenido reducido recogido en el artículo 12.2 del Reglamento de la Ley General de Subvenciones

**Artículo 15.** Las líneas estratégicas de actuación recogidas en el presente Plan Estratégico, en el que se integran las líneas de subvenciones del Ayuntamiento, son las que se indican en el anexo que se incorpora al Plan

## CAPÍTULO VI CONTROL Y EVALUACIÓN DE LOS PROGRAMAS SUBVENCIONADOS

**Artículo 16.** Para un mejor análisis de la eficacia de cada subvención, los Servicios que actúen como órganos instructores del procedimiento de concesión de las subvenciones, solicitarán de los beneficiarios,



dagokionean, egindako jardueren kopuruaren gaineko txosten arrazoitua, diru-laguntzak zenbat herritarri eragiten dion eta lortutako helburuen justifikazioa.

en los casos en que corresponda, informe motivado sobre el número de acciones desarrolladas, número de ciudadanos a los que alcanza la subvención y justificación de los objetivos alcanzados.

## **VII. KAPITULUA. PLAN ESTRATEGIKOAREN KONTROLA, EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA**

## **CAPÍTULO VII CONTROL, EVALUACIÓN Y SEGUIMIENTO DEL PLAN ESTRATÉGICO**

**17. artikulua.** udal kontu-hartzaileak egingo du Plan honen finantza-kontrola, plana indarrean dagoen aldi horretan.

**Artículo 17.** el interventor municipal efectuará el control financiero del cumplimiento del presente Plan durante su período de vigencia.